BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4528

AGINDUA, 2013ko urriaren 4koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Achucarro Basque Center For Neuroscience Fundazioa» erakundearen estatutuen aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertuta geratu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea. Hona hemen

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko apirilaren 26an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Achucarro Basque Center For Neuroscience Fundazioa» erakundearen estatutuetako 4 artikuluan egindako aldaketa inskribatzeko eskabidea. Espedientean jasotako dokumentazioa erantsi zitzaion eskabide-idazkiari.

Fundazioen Erregistroak, 2013ko maiatzaren 27ko idazkiaren bidez, dokumentazioan ikusitako akatsak zuzentzeko eskatu zien interesdunei, eta 2013ko ekainaren 28an, espedientean ageri den dokumentazioa sartu zen Herri Administrazio eta Justizia Sailean.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatzen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta, bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak. Aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatutako manuak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira. Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zamudioko (Bizkaia) «Achucarro Basque Center For Neuroscience Fundazioa» erakundearen estatutuetako 4. artikuluan (Helbidea) egin den aldaketa inskribatzeko agintzea,

agindu honen data dutela, 2013ko ekainaren 28an Bilboko notario Juan Ramón Manzano Malaxechevarria notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren zehaztapenekin bat etorriz (protokolo-zenbakia: 690). 2013ko ekainaren 28an aurkeztutako dokumentazioaren bidez zuzendu zen eskritura hori.

Aldaketa inskribatuta, fundazioak Zamudion du helbidea, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean, 205. erakinean (48170, Bizkaia).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 4a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.